

CUERPO Y MOVIMIENTO EXPRESIVO

Irakaslea

MAFALDA SALOIO (1976), Antzerki fisikoan Jacques Lecoq Nazioarteko Antzerki Eskola (Paris) eta Gizarte Komunikazioan Lisboako Unibertsitate Teknikoan prestatua.

Antzezlea eta antzerki-zuzendaria da. Bere lanek, antzerki fisikoa, objektuen antzerkia eta antzerki-dantza dute oinarri. Gizartean esku-hartzeko eta giza garapenerako lanaren aldeko apustua egiten du. Oportoko (Portugal) Nuevo Circo Circolando konpainian egin zuen lan. Zuzendari gisa Lugar Vagon konpainia sortu zuen, 1998tik 2005era, Pedro Cal eta Suzana Brancorekin. Taldeak sormen sari ezberdinak irabazi zituelarik.

Artista egoiliarra izan zen 2011 eta 2013an, Minas Geraiseko Unibertsitatean, Belo Horizonten (Brasil) eta Caldas da Rainhako Kultur Zentroan (Portugal) 2014/2015ean.

Prestakuntza pedagogikoaren arloan 1999tik antzerki eta adierazpen dramatikoko irakasle gisa lan egiten du.

Duela zenbait ikasturtetik hona, diziplina hori irakasten du Donostiako Lugaritz Kultur Etxean.

Inf+ kontsultatu Mafalda Saloio webgunean.

<https://www.mafaldasaloio.com/eu/>

Deskribapena eta helburuak

Gorputzaren bitartez, istorio eta emozioak adierazteko hizkuntza ezberdinak sustatzeko tailerra.

Ariketa ezberdinen bitartez talde lanaz gozatzeko gune dibertigarri bat izango dugu. Mugimendu espresibo ikasketak gorputza estimulatzeko era samur eta terapeutiko batean gure osasun fisiko zein emozionala hobetzeko baliagarria dira.

Tailerrean elkargunea, dibertsioa, konplizitatea, irrifarra eta konfidantza landuko dira. Saiatuko gara gure artean eta besteekin harremanetan jartzeko beste bide batzuk bilatzen.

Garapen pertsonala eta taldekoa bultzatzeko teknika ezberdinak landuko dira:

- Sorkuntza dantza: musikatik abiatuz, beste espresabide batzuk landuko dira.
- Konfidantza sendotu eta norbere gorputzaz jabetu.
- Erlaxatzeko ariketak: gorputza erneratu eta tentsioak askatzeko teknikak.
- Mugimendua eta emozioak: eguneroko egoeretako gorputzetik abiatuta emozioak landu.
- Taldeka zein bakarka inprobisatu.

Nori zuzendua

Helduak

Data - Ordua

X 13 – XII 15

Asteazkena 19:00 – 21:00

Hizkuntza

Gaztelania

Oharrak

- Ikasle guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Agintariek eta Donostia Kulturak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak jarraitu beharko dira.
- Matrikularen zenbatekoan ez da ikastaroko materiala sartzen, eta ikastaroa egin bitartean behar izan daitezkeen bestelako materialak ikastaroko ikasleek emango dituzte. Ikastaro batzuetan, Donostia Kulturak hasierako oinarrizko materiala jarri ahal izango du.